



ARABAKO MENDIALDEA

EUSKARAREN ERABILERA PLANA

2018
-
2022



Cuadrilla de Campezo-Montaña Alavesa
Kanpezuko-Arabako Mendialdea Kuadrilla

SARRERA

Euskararen erabilera planaren testuingurua

Euskara planaren **helburu nagusia** da Kuadrillan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara plan honen **helburu estrategikoek** helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

1. Herritarrekiko idatzizko zein ahozko harremanetan **euskara zerbitzua hizkuntza** izan dadin areagotzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.
2. Euskara beste **administrazioekiko harremanetako** hizkuntza izan dadin areagotzea.
3. Euskara **administrazio barneko atal elebidunetan lan hizkuntza** izan dadin ahalbidetzea.
4. Euskararen erabilera bermatu eta prestigio ematea **irudi korporatiboan**.

Zeharkakotasuna

Lana hobetzeko bide gisa ez ezik ezinbesteko tresnatzat jotzen da zeharkakotasuna, Kuadrillak bizilagunei adostutako irizpideei jarraituz egiazko eta kalitatezko zerbitzu elebiduna eskainiko badie.

Batetik, euskararen erabilera normalizatzeko arau-irizpideak bere egin behar dituzte langileek, eguneroko lanean gogoan izan eta, behar denean, bete eta betearaztea. Gizarte elebiduna da gurea eta herritarren hizkuntza aukerak bermatzen saiatu behar du Kuadrillak. Hori dela-eta, Kuadrillako langileek herritarrengan eragina izango duten jarduera eta ekitaldietan ezin inoiz utzi bazterrean euskararen ikuspegia, ezin inoiz ahaztu hizkuntzaren gaineko aurreko gogoeta.

Testuingurua

2018-2022 VI. Plangintzaldiari dagokion Kanpezu-Arabako Mendialdeko Kuadrillaren Euskararen Erabilera Plana proposatu baino lehen gogoratu behar da lehenengo Erabilera Plana 2012an onartu zela. Ondoren 2013-2017 V. Plangintzaldiari bere osotasunean zegokion plana onartu zen.

Aurrekoa aintzat hartuta, Kuadrillak adostu zuen lan-ildo horretan lanean jarritzea eta zehaztu eta egokitu Plana indarrean dagoen Plangintzaldiari. Plan honetan euskararen erabileraren berri ematen da eta Plangintzaldia amaitu aurretik lortu behar diren helburu orokorrak xedatzen dira, ere bai.

KANPEZU-ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAREN HELBURUA 2018-2022 EPEALDIRAKO

Atal honetan 2022 amaierarako Kuadrillak zer helburu lortu behar dituen zehaztu dugu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako gomendioak aintzat hartuta.

Urtez urteko neurriak kudeaketa planetan jasoko ditugu, epeak eta arduradunak zehaztuta.

1.ZERBITZU-HIZKUNTZA

KUADRILLAREN IRUDI KORPORATIBOA- HELBURUAK

- **Erabilera sustatzeko elementuak:**

Herritarrek argi izatea Kuadrillarekin dituzten harremanetan euskaraz jardun ahal izango dutela. Horretarako identifikazioa jarriko da hala egin dezaketen lanpostuetan.

- **Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak:**

Barnekoa

- Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerakoak elebidun egotea.
- Kuadrillak irudi korporatiboa euskaraz izatea, lehentasuna emanez euskarari hala kokapenean (zutabeen idatzitako testuetan, ezkerrean, euskara/eskubian, gaztelania; eta goian eta behean idatzitako testuetan, euskara goian eta gaztelania behean) nola tamainan, letra-tipoan...
- Papeleria (gutun azalak, orriak...) euskaraz egotea.

Kanpokoak

Kuadrillaren eskumeneko ohar, seinale eta gainerakoak elebidun egongo dira (zutabeen idatzitako testuetan, ezkerrean, euskara/eskubian, gaztelania; eta goian eta behean idatzitako testuetan, euskara goian eta gaztelania behean), edo mezuen hartzaileak zein diren edota erreferentziazko programak kontuan izanda euskaraz egon daitezke.

- **Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak**

Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak Bai derrigorrezko iragarkiak bai publizitatea egitekoak elebidun bidaltzea hedabideetara.

Eskualdean zabaldu beharreko agirietan ere bi hizkuntzak erabiltzea, betiere arreta berezia jarriz hizkuntzaren kalitateari.

Kanpainarik egingo balitz, elebidun egitea; betiere, euskarari lehentasuna emanez eta mezuen hartzaileak zein diren edota erreferentziazko programak kontuan izanda euskaraz egin daitezke.

Euskararen presentzia bermatuko da herritarren aurreko adierazpenetan eta prentsa-oharretan edo antzekoetan.

- **Ingurune digitala:**

- Orain arte bezala, Kuadrillaren webgunea hasiera-hasieratik euskaraz zabaltzea.
- .eus domenuari ikusgarritasuna ematea.
- Erabiltzaileengan eragitea, euskarazko baliabideak erabil ditzaten (esaterako

nabigatzailea euskaraz, sistema operatiboa euskaraz...).

- Erabiltzaileen eskura dauden webguneko beste edukietan euskararen erabilera handitzen saiatzea, baita kanpo loturak ere; bereziki herritar guztiei zuzendutako edukiak.

HERRITARREKIKO HARREMANAK

- **Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan**

Herritarren hizkuntza hautua errespetatuko da berariaz sortuko eta eguneratuko diren idatzi estandarizatuen bidez.

Euskaraz egindako eskaerei erantzuteko helburu mailakatuak adostuko dira eta idatzien ereduak sortuko dira itzulpenetara etengabe joan beharrik gabe, hala atal elebidunetan zein besteetan modu autonomoenean lan egin ahal izateko.

- **Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan.**

Harrera bi hizkuntzetan izango da.

Euskarazko eskaerari euskaraz erantzungo zaio atal elebidunean, eta besteetan lehentasunak aztertuko dira helburu zehatzak lantzeari begira.

Lan berezia egingo da ataletan ardura duten langileekin haien gaitasuna hobetzeko.

Bi hizkuntzen erabilera bermatuko da hartzaile jakina ez duten ahozko mezuetan (erantzungailu automatikoetan, bozgorailuetan...).

2.LAN-HIZKUNTZA

BARNE HARREMANAK

- **Lanari lotutako hizkuntza-paisaia**

Barne dokumentazio generikoan eta ohar edota errotulu puntaletan ere euskararen presentzian aurrerapausuak ematea.

- **Idatzizko barne harremanak**

Barne idatziak apurka-apurka euskaraz, gutxienez, egingo dira protagonismak langile elebidunak eta kanpoko zerbitzuak izango direnean (kultura, berdintasuna, ingurumena, euskara...).

Deialdien idatziak elebidunak izango dira. Horretarako, lehentasunak eta beharrezko ereduak azterketa egingo da.

- **Ahozko barne harremanak**

Barne lan bileretan galdegingo da sistematikoki euskaraz egin ahal izateari buruz, eta azpimarratuko da komunikazioak elebidun izatearen garrantzia. Hala eskatzen duten entitate eta partikularrekin jarduteko jokaera-irizpideak adostuko dira.

Langileen artea, ordezkari politikoen artean eta langile zein ordezkari politikoen artean emango diren ahozko harremanak euskararen alde sustatuko dira, ezagutza eta gaitasunaren arabera.

- **Baliabide informatikoak**

Baliabide hauen egoera eguneratuko da, eta haien erailera sustatuko da.

Bestelako euskarrietan (hari musikala, irratia..) bi hizkuntzen erabilera bermatzen saiatuko da.

PERTSONEN KUDEAKETA

- **Pertsonen kudeaketa**

Ikusirik derrigortasun-data eta hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetako langile guztiak izango direla bereziki plan honek eragingo dien langileak, planaren parte izatea saiatuko da, beraiei plana azalduz eta haien aldeko jarrera sustatuz.

Bereziki, Erabilera plan honek eragingo du Kuadrillak euskara funtzionatzea eragiten duten langileen kasuetan.

Kuadrillako ordezkariak planaren parte izatea sustatuko da, beraiei plana azalduz eta haien aldeko jarrera sustatuz. Era berean, desiragarria da euskara ulertzeko gutxieneko gaitasuna izan dezaten, Kuadrillaren euskarazko funtzionamendua oztopa ez dezaten.

- **Laneko prestakuntza**

Lan-eginkizunak betetzeko baliabide egokiak emango zaizkie langileei; beti ere, erakundearen egoeraren arabera eta zerbitzuaren kudeaketa zuzena bermatuta. Hortaz, besteak beste, birziklatzeko eta eguneratzeko saioak antolatu daitezke eta beste erakunde batek, HAAE kasu, antolatzen dituen ikastaroetan partehartzea planifikatuko da.

KANPO HARREMANAK

- **Administrazioa**

Euskaraz gaitasuna duten entitateekiko harremanak euskaraz izango dira atal elebidunean, ahoz zein idatziz. Zeregin administratibo orokorretan idatzi estandarizatuak, gutxienez. Euskara sustatuko da ahal den guztietan, bereziki hizkuntzaren normalizazioaren arloko instituzioekin zein zerbitzuekin.

- **Erakunde pribatuak: finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.**

Kuadrillarekin kontratazio administratiboen bidezko lotura duten zerbitzu enpresek Kuadrillaren hizkuntza irizpide berberak bete beharko dituzte. Helburua lortzeko kontratazioetan baloratuko da Bai Euskarari edo Bikain hizkuntza ziurtagirien jabe izatea.

Kontraturik ez duten hornitzaileen kasuan, ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izatea bultzatuko da.

- **Bestelako harremanak: aliatuak, erakunde kolaboratzaileak, etab.**

Kuadrillak diruz laguntzen dituen elkarteei zein jardueri begira, diruz lagundutako jendaurreko ekimen guztietan (xede den ekintza, publizitatea...) eta Kuadrillarekiko harremanetan (ahozkoak eta idatzizkoak) euskara sustatuko da.

Kuadrillak egingo dituen ekitaldi publikoetan euskararen erabilera bermatuko da.

KUDEAKETA SISTEMA

- **ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea**

Txosten honetan zehaztuko diren helburuei begira, urtean behin hartu beharreko konpromisoak zein diren aztertu eta zehaztuko da eta, era berean, konpromiso horiek ekarriko dituzten neurriak nork eta nola bete/betearaziko dituen jasoko dugu puntu honetan. Horren ardura hartuko duen azpiegitura Jarraipen batzordea izango da. Jarraipen batzordea kide hauekin osatuko da:

- Arduradun politikoak
- Langileen ordezkariak
- Euskara teknikaria.

Horrenbestez, zeregin hauek bideratuko ditu Jarraipen batzordeak:

- Talde eragilea izango da.
- Gutxienez, urtean behin elkartuko da, eta hurrengo aldirako zereginak zehaztuko ditu bilera bakoitzean.
- Ardurak banatuko ditu, txostenak onartutako helburuei begirako konpromisoak/neurriak betetzeko.
- Konpromiso/neurri bakoitza betetzeko edo/eta betearazteko arduradunak izendatuko ditu.
- Jarraipen batzordeko bilera batetik bestera banatutako lan eta ardurak bete diren baloratu eta egokitzapenak egingo ditu, hala behar izanez gero.
- Kuadrillako Batzarrari edo Gobernu Batzordeari jakinaraziko dio zer neurri edo erabaki hartuko diren.

Euskara teknikariak izango du idazkaritza teknikoaren ardura.

Jarraipen batzordearen funtzionamendua euskaraz bermatuko da.

- **HERRITARRAK eta ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea**

Hizkuntzak txertatu zerbitzu-prozesuetan, eta horretarako Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezarriko dira.

- **PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea**

Egiaztatutako hizkuntza-eskakizunak baloratuko dira, baita ulermenean langileek egindako hobekuntzak ere; eta era berean, ordezkari politikarien hizkuntza-gaitasuna.

Apirilaren 15eko 86/97 Dekretuan ezarritakoari erreparatuta, eta 2016 datu soziolingüistikoak ikusita, bete beharreko indizea da: %33,35. Indize horrekin ezartzen da hizkuntza eskakizunen beharra. Hortaz, Kuadrillako bi lanpostuetan derrigortasuna data ezarri behar da.

Lanpostu zerrenda aztertu ondoren, eta etorkizunari begira, 2018ko hasieran 45 urte beteta zuten langileen lanpostuetan derrigortasun data ezarriko dira. Lanpostuak betetzen dituzten langileak salbuetsita daudenez, ez dute kalterik jasoko. Hala, etorkizunari begira, hurrengo langilea elebiduna izango dela ahalbidetuko da.

Era berean, lanpostu zerrenda aldarazi dezaketen langile berriek Hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data ezarrita izango dute hasierako unetik.

Ezagutzari eta betetze mailari dagokienez, hau da erakundearen egoera:

Lanpostua	Taldea	Hizkuntza- eskakizuna	Derrigortas un- data	Euskara maila
Gerentea	A	2015/05/22	3.	3.
Gizarte langilea	B	2015/05/22	3.	0
Sustapen ekonomikorak o teknikaria	A	Data gabe	4.	0
Animatzaile sozio-kulturala eta kirolekoa.	C	Data gabe	3.	2.
Administraria	C	Data gabe	2.	0
Administrari laguntzailea	D	Data gabe	2.	0

Plan honen inguruan bi kolektiboen (arduradun politikoen eta langileen) balorazioa eta haren partehartze maila ere jasoko dira.